


udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**



IZENBURUA:

Hizkuntza, balio erantsia Arratiako enpre-
sen garapenean. Elkarlanaren emaitza.

EGILEA:

Arkaitz Bernaola Abasolo (Arratiako Zulaibar Lanbide Ika-
stegia), Iratxe Goikoetxea Aldekoa (Errota Fundazioko koordi-
natzailea) eta Miren Madariaga Tabet (Ahize-AEK-ko teknika-
ria).

DATA:

2019/05/16



AURKIBIDEA

1. Zer da eusGara?.....	3.
2. Hastapenak.....	5.
3. Lankidetzarako emandako pausoak.....	6.
4. Egitasmoa zehaztu eta aurkeztu.....	7.
5. Egitasmoa bideratu.....	9.
6. Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegia.....	11.



Bizkaiko biztanleriaren % 1,2



EAEko % 0,6



2. Hastapenak

Egitasmoa Lemoako Udaletik abiatu zen 2016. urte amaieran, Udala bera bakarrik nekez heltzen zen-eta udalerriko enpresetara. Eskualdeko proiektu integral batean enpresetara heltzeko egitasmo bat abian jartzeko saiakera egin zuen Udalak, besteak beste, honako arrazoiengatik:

- Beharrezana: Arratian sektore pribatua da hizkuntzaren aldetik gehien eraldatu beharreko arloa. Arratian lan eta bizi den biztanleria handia da eta gaitasun eta ezagutza datu horiek ez dira enpresetan islatzen; % 83 da eta euskalduna edo ia-euskalduna eskualdean. Hori dela eta, Gure enpresak kokatzen diren herrietan, lanean izan ezik, bizitzako beste arlo guztietan euskara da hizkuntza. Inguruneari errespetua zor diogu, era berean, bertako hizkuntza errespetatuz.
- Euskarari bizi-indarra ahalbidetu behar zaio eta euskararen erabilera modu progresiboan areagotzeko neurriak hartu behar dira, euskara lan-hizkuntza bezala bermatu ahal izateko.
- Lanean ematen dugun denbora eta lanak duen garrantzi soziala kontuan hartzen baditugu, gure bizitzan duen garrantziaz ohartuko gara. Era berean, lanean duen zentralitatearengatik eta laneko hizkuntzak gizartearen aurrean duen prestigioagatik ere izan behar dugu kontuan (Ekai Center, 2014). Hori dela eta, lanean euskararen erabilera bultzatzen badugu, langileen gainerako esparruetara ere helduko gara zeharka. Izan ere, lanean lagunak ere baditugu, familiako kideak, koadrilakoak...
- Lanketa bateratu bat eginda eraginkorragoa da.
- Arratiar gehienek Arratian egiten dute lan; herri batetik bestera lanera doazen pertsona asko dago. Hori horrela, nahiz eta herri batek industria gunerik ez izan, herri horretako pertsona askok eskualdeko enpresetan lanean dihardu eta ekimen honekin biztanle horretan eragiten da...



- Lan-munduan euskararen lanketa zabaltzea estrategikoa da hizkuntzaren normalizaziorako. Gainera, lanean sartzen diren langile gazteak euskaraz ikasitakoak dira, ondo moldatzen dira euskararekin. Gazteek euskaraz egindako ibilbide akademiko horri jarraipena ematea da lanean euskara txertatzea; ibilbide naturala izan behar da eta etenik gabekoa. Gazteen ezagutza ere baliatu genezake enpresan euskararen aldeko lanketan laguntzeko.
- Enpresaren ikuspegitik, euskararen erabilerak dinamismo, kalitate eta lehiakortasun irudia ematen du.
- Zerbitzua euskaraz eskaintzeak balio erantsia dakar.
- Behargin eta bezeroarenganako komunikazioa eta gogobetetzea hobetzeko orduan, euskarak eragina dauka.
- Euskara hizkuntza ofiziala da Arratian, hori dela eta, beharginak euskaraz be behar egiteko eskubidea daukate.
- Euskara lan-hizkuntza izatea posible da enpresa osatzen dutenen adostasuna lortzen bada eta gainerako hizkuntzak errespetatzen badira.

3. Lankidetzarako emandako pausoak

3.1. Arratiako udalek aho batez egitasmoa onartzea

Lemoako Udala Arratiako gainerako udalerriekin harremanetan jarri zen 2017ko udaberrian, proiektua azaldu, zehaztu eta elkarrekin bideratzeko proposamena egiteko.

Udal guztiek ikusi zuten lan-munduan euskararen erabilera areagotzeko beharrezana eta bide hori elkarlanean egitea aho batez erabaki zuten. Hori horrela, proiektua zelan bideratu erabaki zuten eta Errota - Arratiako garapen sozioekonomikorako Fundazioari proposatzea erabaki zen.

3.2. Errota Fundazioa koordinazio gunea

Errotak eskualdeko arlo desberdinen garapena helburu du, eta arlo horietan hizkuntzaren garapena integratzea estrategikoa da Arratia euskalduna erdiesteko. Arrazoi hori aintzat izanik, Errota Fundazioa prest agertu zen egitasmoa bere hartu eta aholkularitza zerbitzu bat kontratatzeko.

Lankidetzaren behar zela aurreikusi zen, helburuak bete nahi baziren, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren euskara arduradunekin harremanetan jartzea eta proiektua aurkeztea erabaki zen.

3.3. Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza

Proiektua aurkezteko eskaera egin eta arazorik gabe artatu zuten proiektua bi erakundeetan.



Lehenik eta behin, Lorea Bilbao Euskara eta Kultura Saileko foru diputatuarekin elkartu ziren Errotako koordinatzailea eta Lemoako Udaleko euskara teknikaria. Proiektua aurkeztu ondoren, egitasmoari babes ekonomikoa emango zitzaiola adierazi zuen. Bizkaian ez da aurretik arlo ekonomikoan euskara sustatzeko antzerako proiekturik garatu eta proiektu pilotu moduan oso interesgarria iruditu zitzaion aldundiari.

Azkenik, jaurlaritzaren izenean Josune Zabala hizkuntza ikerketa eta koordinaziorako zuzendariarekin batzartu ziren eta proiektuarekin bat egingo zutela adierazi zuen.

Proiektuaren arrakasta bermatzeko, bi urteko luzapena izatea adostu zen.

Erakunde desberdinen sinergiak baliatzea eta lankidetzaz bermatzea izan dira gakoak eta, era berean, koordinazio hori gauzatzeko gunea sortzea, eskualdeko euskararen ikuspegia garatu, landu eta zeharkakotasunean bideratu ahal izateko.

4. Egitasmoa zehaztu eta aurkeztu

4.1. Egitasmoa zehaztu

Helburuak definitu

Epe luzerako helburua: Sektore honetako enpresen lan-hizkuntza euskara izatea.

Epe ertainera begira:

- Arratiako enpresetan euskara planak abian jartzea, euskara lan-munduan txertatzeko Arratian dauden aukerak identifikatu eta horiek baliatuta.
- Euskara lan-munduan txertatzeko laguntza eta baliabideak eskaintzea.
- Errotak hizkuntzaren garapena garapen sozioekonomikoan txertatzea.
- Entitateen eguneroko jardunerako gutxieneko hizkuntza politika proposamena bateratua izatea.
- Saretzea, elkarlana sustatzea, komunikazioa elkarbanatzea, praktika onen zabalpenerako esparruak sortu edota elikatzea.

Helburu horietara heltzeko gauzatuko diren ekintzak zehaztu

- Enpresen zerrenda egin eta aukerak identifikatu.
- Arratian dauden lekukotasunak identifikatu eta horiek baliatu.
- Enpresetara bisitak egin (diagnostikorako aukerak aztertzeko): 30 2018an; 15 2019an.
- Diagnostiko horien arabera ekintza plana(k) diseinatu.
- Enpresekin konpromisoak adostu eta sinatu.



- Komunikazio plana diseinatu eta abian jarri.
- Ekintzak bideratu: planen inplementaziorako laguntza eskaini, errotulazioa aldatu, lanbide heziketan praktikak euskaraz, diru-laguntzetarako informazioa erraztu ...
- Ziurtagiriak sustatu: Bikain, Bai Euskarari.
- Elkarlanerako foroetan aktiboki parte hartu: Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzordea, Biskeus, Euskaragileak, eskualdeko foroak...

Xede taldea identifikatu

Arratian kokatuta dauden industria sektoreko 10 langiletik gorako enpresak).

Enpresari eskatuko zaizkion gutxienekoak adostu

Parte-hartzea erabakitzen duen erakundeak gutxieneko betebeharrak izango ditu:

- Erakundearen atxikimendua.
- Hitzartutako konpromisoak bete.
- Solaskidea izendatu (euskalduna).
- Lanak erraztuko dituen barne egitura bat zehaztu.

4.2. Eskualdean proiektua aurkeztu

Xede talde guztiari eta lankidetzan parte hartutako erakundeak aurkezpenera gonbidatu ziren 2017ko azaroaren 30ean, Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegian.

Parte-hartzaile kopurua: udaletako eta mankomunitateko ordezkariak, eskualdeko 10 enpresa, Laneki eta Jakinbaiko kudeatzailea, eta Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza.

4.3. Kontratazioa bideratu

Proiektua aurkeztu eta lankidetzaren azken zehaztapenak adostu ondoren, hiru aholkularitza enpresari gonbidapena egin zitzaion proiektua bideratzeko eta Ahize-AEK izan zen hautatua.



5. Egitasmoa bideratu

5.1. Metodologia definitu

Enpresei aurrez aurre egitasmoa azaldu

ENPRESARI EMATEN DIOGU

- Aholkularitza eta informazio zerbitzua. Gaia kokatzen eta erabakiak hartzen lagundu eta enpresaren ezaugarrien arabera lehentasunak finkatu (sektorearen eta langileen gaitasun linguistikoaren arabera...).
- Hizkuntza zerbitzuak. Terminologia eta gramatika zalantzak argitu ("Nola esaten da...?"). Itzulpenak eta zuzenketak (Errotuluaren kasuan itzulpen mugagabea, gainerako testuetan karaktere kopuru mugatua: Itzulpena: ES->EU: urtean 7.200 karaktere / EU->ES: urtean 10.800 karaktere / Zuzenketa: urtean 14.400 karaktere). Hizkuntza tekniko normalizatu eta finkatzen lagundu.
- Dokumentu ereduak sortzen lagundu. Erabilienak diren dokumentuen eredu edo formatuak sortzen eta sistematizatzen lagundu.
- Dirulaguntzei buruzko informazioa: dokumentu luzeagoak itzultzeko, errotuluak aldatu eta irudi korporatiboa lantzeko, web guneak itzultzeko, aplikazio informatikoak eta makinak euskaratzeko, kudeaketa euskaraz eramango dieten enpresak kontratatzeko...
- Euskararen Kalitate Ziurtagiriei buruzko informazioa eta horietara aurkezteko gutxieneoak zein eman beharreko pausoen azalpena.
- Euskarazko baliabideak eskura jarri (ofimatika, txosten ereduak, lana eta zerbitzua euskaraz bideratzeko lagungarri izan daitezkeen euskarriak...)
- Lantaldeak motibatuzko saioak. Hizkuntza ohiturak aldatu eta erabilera sustatzeko dinamikak. Gomendioak eskaini eta laguntza ibilbidea finkatzeko eta emango diren pausoen inguruan hausnartzeko. Horretaz gain, bileretan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko teknikak erakutsi.
- Ezaugarri antzekoak dituen eta hizkuntzen kudeaketan eredu den enpresa batera bisita.
- ERROTA Fundazioko web gunean atal bat.

ENPRESARI ESKATZEN DIOGU

- Hitzarmena Errotarekin sinatzea.
- Enpresaren atxikimendua.
- Hizkuntza eskubidea errespetatzea, begirunez jokatzeko.
- Solaskide euskalduna izendatzea hizkuntza kudeaketa gaietarako.
- Urtean 8 orduko auzolana eskaintzea egitasmoari (bilerak, jardunaldiak...).



5.2. Lorpenak

- Hizkuntza politika bateratua, EME ardatza oinarri hartuta.
- Euskara planak abian jartzea, ibilbide antzekoak dituztenak (enpresa batzuek beraien lehentasun eta erritmo zehatzak dauzkate). Enpresek ibilbide bateratu bat izateak hila9.
- Hitzarmen kopurua: 12 (300 langile baino gehiagorengan eragiten du proiektuak).

Alinar die casting, S.L.L.

Alkizabal, S.L.

Baserrigintza Berria, S.L.

Comecaran, S.A.

GráficasArratia Bi, S.L.L.

Electro Ilunbe, S.A.

Jandoniz, residencia de Bedia para mayores, S.L.

Lekun Caucho Plásticos, S.L.

Ormaurre, S.L.

Tresnak, S.L.

Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegia

Industrias Bai 1996, S.L.L.

- Praktika aldiak euskaraz egiteko testuingurua sortzeko hitzarmenak sinatzea, Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegia eta eskualdeko 6 enpresen artean.

5.3. Datozen erronkak

- 3 hitzarmen gehiago sinatzea.
- Enpresek beraien eguneroko jardunean euskararen erabilera areagotzeko autonomia lortu, ohiturak hartu eta ku-deaketa sisteman txertatzea.
- eusGara proiektua bi urte gehiagora luzatzea (2020-2021).
- Enpresa bakoitzari eman beharreko bertatik bertarako zerbitzua ordutan handitzea.
- Formazio saio bat eskaintzea, beharizan komunei erantzungo diena.
- Errotak hizkuntzaren garapena garapen sozioekonomikoan txertatzea.
- Saretzea, elkarlana sustatzea, komunikazioa elkarbanatzea, praktika onen zabalpenerako esparruak sortu edota elikatzea.



6. Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegia

Errota fundazioaren patronatu kidea da Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegia, hezkuntza arloan.

6.1. Proiektuan sartzearen arrazoiak

- Aliatu berri bat lortzea euskararen ikuspegitik planteatzen diren erronkei aurre egiteko.
- Bezeroen beharrianak asebetetzeko eta praktikak hobetzeko aukera paregabea delako.
- Arratian Euskararen erabilerari, batez ere lan-munduan, bultzada bat eman nahi zaio; lan munduan euskararen normalizazioan Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegiaren ekarpena eraginkorragoa izateko bide egoki bat izango da.

6.2. Proiektuak eskaintzen dizkion aukerak

- Erakundearen, xedea, ikuspegia eta balioak gauzatzeko ekarpenak eta laguntza lortzea eta euskarari dagokionez proaktiboagoak izatea.
- Euskararen presentzia eskualdeko enpresetan areagotzea.
- Euskarak lan-munduan daukan presentzia areagotzea eta lanaren egunerokotasunean komunikatzeko tresna baliotsua izatea.
- Euskal Herriko ondare materiala (hizkuntza, euskara) zaintzeko eta erabiltzeko ikasleak motibatzea.
- Bertako ikasleen hizkuntza gaitasuna hobetzea bere etorkizuneko lan inguruan kompetentea izateko eta aukera gehiago eduki ahal izateko.
- Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegia kanpotik ikusita euskararen plan estrategikoa hobetzeko ekarpenak lortzea.
- Ikastetxeak azken bi hamarkadetan euskararekin lotuta egin duen ibilbidean sakontzea.